

Kalitatezko gonbidatuak larunbateko VI. Akordeoi Jaialdian

Ostegunean, Zero Sette akordeoi orkestrak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen duten VI. Akordeoi Jaialdiko prentsaurrekoa egin zen.

Jone Altuna Kultura saileko burua, Zero Setteko Javier Zatarain eta Xabier Goitia Kulturetxeko kudeatzailea izan ziren larunbatean egingo den jaialdia aurkeztu zutenak.

Jone Altunak Zero Sette orkestra zoriandu zuen lehenik "udan izan dituzten emaldi arrakastatsuenengatik" eta, jarraian, akordeoia sustatu behar dela azpimarratu zuen.

VI. jaialdi honetako gonbidatuei buruz ere mintzo zen. "Oso egokiak iruditu zitzaizkigun. Batetik, Nathalie Boucheux dugu, duela bi urte, jaialdian arrakasta handia izan zuena. Aurten abesti frantsesak eta kutsu espainiarra duten doinuak dakartza bere taldea-

rekin batera. Eta, bestetik, Xabier Iglesias dugu. Musika eskolako ikasle onenarikoa zen eta jotzean akordeoiarekin bat egiten zela zirudien," adierazi zuen.

Eta akordeoi orkestrari eskerrak emanaz bukatu zuen, "egindako esfortzuarengatik."

Zatarainek Zero Setteren abestiak estreinekoz joko direla adierazi zuen, "izan ere, Rossiniaren *La Gazza Ladra* ez baita herrian jotzen 1992tik."

Eta, honetaz gain, jaialdia osasun onekoa dela azpimarratu zuen. "Aurten krisiagatik ezin izan dugu orkestrarik ekarri, baina jakin ezazue orkestra eta talde ugari etorri nahi duela jaialdira," adierazi zuen Zero Setteko ordezkariak.

Azkenik, eskerrak eman zizkion Udalarri eta Semblante Andaluz elkarteari "afaria bertan antolatzen uzteagatik." •



Zero Sette eta Udalak antolatzen duten akordeoi jaialdia larunbatean izango da, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean.

GIZARTEA /3

Urrian irekiko ditu atek Esperientzia Eskolak

ASIA /4-5

Herriko haur eta gaztetxoek uda ondo pasatzeko aukera izan dute

KIROLA /6

LOKEko judoek txapelketaz betetako denboraldia dute



Mailana eta bere aita Lasarte-Oriako Udalak emandako oroigarriekin.

Maialen Chourraut palistari harrera xumea egin zitzaion Udaletxean

Munduko Txapelketan K1 Mailan zilarrezko domina eskuratu zuen Maialenek irailaren 13an. Lanaren ostean, atsedena dator eta gure artean egun batzuk egongo dela aprobetxatuz Lasarte-Oriako Udalak harrera xumea eta beroa egin zion astelehenean batzar aretoan.

Udaleko ordezkariak, Atlético San Sebastian, LOKE eta Texas-Lasarteak kirol elkarrekin ordezkariak, familia eta lagunak egon ziren bertan Maialen zoriontzeko.

Lasarte-Oriako Ana Urchueguia alkateak esan zuen bezala, "Maialeni omenaldi xumea egin nahi izan diogu, Munduko Txapelketan bigarren postua esku-

ratzeagatik." Nahiz eta, alkateak azpimarratu zuen bezala, "aitak piano jolea izatea nahi," Maialenek piragua aukeratu eta zortzi alditan Espainiako txapeldun da eta orain, Munduko txapeldun ordea.

Alkateak "aitak zaintzeko lorea" eta plaka bat eman zizkion Lasarte-Oriako udalaren izenean eta, horren ostean, 2012an Londresen antolatuko diren Olinpiar jokoei buruz galdetu zion Maialeni.

Bertan egoten saiatuko dela esan, guztiei eskerrak eman eta "kirolariak beti gaude onena emateko prest, nahiz eta emaitza onik ez lortu," adierazi zuen Maialenek. •

Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Amaraun LUDOTEKA

JOLASA BAINO GEHIAGO

Matrikulazioa zabalik!

Ttakun 943 371448
aisia@ttakun.com
www.ttakun.com

Neure kabuz



Zibilizazio ... falta

Oporrak amaitu eta gero ... ni ere "lehiakorra izaten" hasi naiz, nire zutabekide batek duela aste pare bat eskatzen zuen bezala.

Herriari begira, azken egunotan somatzen da zenbait obra piskanaka amaitzen hasi direla. Horren adibide dira, besteak beste, hirigunean estreinatu berri diren oinezkoen pasabide handi, zabal eta gorri-gorriak. Azkenaldi honetan inoiz baino sarriagotan gertatu izan oinezkoen pasabidea igaro nahi izan eta beribilien edo autobusen bat, "txistu bizian", gelditu gabe, nire aurretik pasatzea, eskubide osoa nirea izanik noski. Batzutan haurra soinean neramala eta guzti!!! Gidaria normalean konturatu izan ohi da eta besoa altxa izan ohi du (barkamena eskatuz edo pentsatu nahiko nuke).

Horrelakoak gertatzen zaizkidan beti zera pentsatu izan dut: kontatuko banitu barkamena zenbatetan eskatu didaten eta horri barkamena eskatu ez didaten (hori ere gertatzen da) kopurua gehitu, zenbat alditan bukatu izango zukeen nire buruak ospitalean zaurituta ... edo hilik? Baietz 50 alditan gutxienez!!!

Oinezkoek pasabideetako errege edo errejin (monarkiko, errepublikar, edo beste edozein itxurakoa) behar dute izan behingoz, eta behin eta betiko!!! Bai jauna!!!

Bukatzeke, gauzatxo bat besterik ez, badirudi "kimu berdeak" gure inguruan Europako beste herrialdeetan baino beranduago irten-go direla. Berri ekonomiko on gutxi dago azkenaldi honetan.

Iñaki Erauskin

Zorion-agurrak



Uxue eta Enara

Zorionak bikote! Familiaren partetik milaka muxu potolo!



Unai

Zorionak Unai!!! Bi muxu potolo familiaren partetik.



Marina

Zorionak 4 muxu zure familiaren partetik



Aimar

Zorionak pottoko! Txoko marrubizko bi muxu goxo familiaren eta Julen-en partetik.



Unai

Zorionak, marrubizko 4 muxu handi.Hodei, aita-txo eta amaxoren partetik.



Malen

Zorionak hiru muxu pottolo, aitaxo, amaxo eta nahiaren partez. Ondo pasa



Gabriela eta Idoia

Zorionak bikote eta muxu handi bat senideen partetik.



Pili

Zorionak guapa! Eta ez jarri aurpegi hori, ez da hainbesterako, 30 urte ez dira ezer!

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
 DYA 943 464622
 Gurutze Gorria ... 943 363953
 Udaltzainak 943 362442
 Ertzaintza 943 288888
 SOS Deiak 112

Udala

Erregistroa 943 376055
 Euskarako Zerbitzua 943 376184
 Kiroldegia 943376182
 Kulturetxea 943376181
 Bakezko epaitegia . 943371629
 Zerbitzu Sozialak . 943376179
 Zentro Zibikoa ... 943363958
 KIUB 943361605
 Udal euskaltegia ... 943361621
 Obrak eta zerbitzuak 943 376180

Guardiak

Ostirala, 25
 Orue, Jaizkibel plaza 2
 Tel.: 943 362 652
Larunbata, 26
 Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361 529
Igandea, 27
 Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361 529
Astelehena, 28
 De Miguel, Kale Nagusia 32
 Tel.: 943 371 151
Asteartea, 29
 Rodriguez, Nagusia 42 atzea
 Tel.: 943 361 774
Asteazkena, 30
 Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361 529
Osteguna, 1
 Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6
 Tel.: 943 363 549

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Ezcaray-en duplexa saldu edo alokatzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. la berria. Telefonoa: 652 774 679.

• Lasarte-Oriako erdialdean 100 m. karratuko etxea alokatzen dut. Tel.: 686 674 552.

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Bikotearentzat egokia. Harremanetarako zenbakia, 657 708 866.

• Gela bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Harremanetarako zenbakia, 666 607 447.

Salerosketak

• Salgai gas-frijigailu industriala. Refugas markakoa; 63 x 40 zm. Erabilgarriak: 43 x 28 zm. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Sukalderako bajilla opari. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Garaje bat alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Opel zafira bat saltzen dut. 3 urte ditu eta 40.000 km. Tel.: 677 983 068.

Lan-eskaintzak

• 9 urteko neska bati etxean bertan ingeleseko klaseak emateko irakaslea behar da Lasarte-Orian. Tel.: 635 707 689

Lan-eskariak

• Mekanika tailerlean, pertsona helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko gizona eskaintzen da. Tel.: 648 785 026.

• Etxe batean interna edo orduka lana egingo nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Etxe batean interna edo lana orduka egingo lukeen emakumea eskaintzen da. Tel.: 608 098 941.

• Etxe batean interna lanetarako emakumea bat eskaintzen da. Tel.: 943 368 574.

• Mutil bat eskaintzen da gizon helduak zaintzeko, baserri lanetarako, zalditegian lan egiteko eta mekaniko gisa lan egiteko. Tel.: 648 785 026.

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko prest orduka edo interna moduan. Tel.: 608 098 941.

• 56 urteko emakume bat eskaintzen da goizeko 08:00etatik 15:00etara pertsona edade-tuak zaindu edo etxeko lanak egiteko Lasarte-Oria eta Hernani inguruan. Tel.: 687 348 223.

• Klase partikularrik ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Tel.: 646 717 676.

• Mutil arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduan zaintzen, baserrietan edo beste lanetan. Erreferentziak ditu. Tel.: 659 260 707.

Bestelakoak

• Bi karate traje eman nahi ditut. 1,70 m. eta 1,90 m. dute neurria. Doan. Interesatuak deitu telefono honetara: 943 363 371 (Ana).

Oharrak jartzeko:

www.txintxarri.iragarkilaburak.com
 www.txintxarri.info
 txintxarri@txintxarri.info
 Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

Jaiotzak

Lorena Jimenez Martin,
 irailaren 21 ean
 Ibai Alkain Manzano,
 irailaren 19an
 Unax Etxebeite Rojo,
 irailaren 16an

Heriotzak

Lorenzo Guerrero Vizuete,
 irailaren 19an 60 urte zituela
 Josefa Iceta Neira,
 irailaren 9an 87 urte zituela

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Urrian irekiko ditu ateak Esperientzia Eskolak

■ Urriaren 10era arte izena eman daiteke eskolako ikastaroetan parte hartzeko

Danok Kide guraso elkarteak eta Mugabek antolatua Esperientzia eskola urrian hasiko du ikasturte berria.

Zortzi hilabetez, urritik maiatzera bitartean eta asteen bi arratsaldetan, Danok Kideko egoitzan, Blas de Lezo kalean, izango dira Esperientzia Eskolako ikastaroak. Ikasturtea bukatzen duten ikasle guztiei, gainera, diploma emango zaie.

Azpitarragarria da, Danok Kidek eta Mugabek elkarlanean daramatzaten sei urte hauetan 200 bat izan direla Esperientzia Eskolako ikastaro eta hezkuntza iraukorrean parte hartu duten herritarrak.

Esperientzia eskola

50 urtetik gorako pertsonen zuzendua dago Esperientzia Eskola eta ez da beharrezkoa aurreko titulaziorik.

Leku ireki eta elkartrukeko gune bat izateko asmoa du eskolak.

Bertan pertsona nagusiek formatzeko eta era guztietako esperientziak elkartrukatzeko baliabide erabilgarri bat izango dute. Eta, aldi berean, hezkuntza eta kultura maila proposa lortu ahaliko dute, ondoren gure gizartearen positiboki eragin ahal izateko.

Horregatik, eskola honen



Danok Kide guraso elkarteak eta Mugabek antolatzen duten Esperientzia eskolak sei urtetan 200 bat ikasle izan ditu.

helburuetako bat, garapen pertsonal, eragingarri, osasun-garri eta arrakastatsua sustatzea da eta horretarako, maila fisiko, psikiko nahiz sozialean formakuntza emango da.

Era berean, adin honetako pertsonen parte hartzea bultzatu nahi da, gizartearen paper aktiboa, erabilgarri eta asegarria izan dezaten.

Eta pertsonarteko eta belau-naldi arteko harremanak susta-

zea ere bada Esperientzia Eskolaren helburu nagusietako bat.

Ekintzak

Eskolako ikasgaien artean, osasunaren mantentze eta hobetzea, gizarte harremanak eta komunikazio gaitasunak, Filosofia, Psikologia edo Bioetika daude.

Baina ikasgaien gain, ekintza kulturalak ere antolatzen dituzte, hala nola, hitzaldiak,

bidaiak, bisita gidatuak edo beste eskolekin elkar trukea.

Izena ematea

Interesatuak Danok Kideko egoitzan bertan edo INGEMAko 943 224 146 telefono zenbakian izena eman dezakete, urriaren 10a baino lehen.

Ikasle kopurua mugatua denez, matrikula lehen bai lehen egitea aholkatzen dute Danok Kide elkartetik. •

IRTEERA

Lasarte-Oriatik Leitzara txirrindaz

Urtero bezala, urriak 3an Lasarte-Oria eta Leizara artean dauden kilometroak bizikletaz egingo ditu lasarteoriatar talde batek. Hamargarren urtea da aurtengoa eta herritarrak animatu nahiko lituzkete parte hartzea. Hitzordua Basaundiko plazan da goizeko 8:30ean, Leizara hamaiketara egin eta gero buelta. •

BIYAK BAT ELKARTEA

Lizarrara txangoa

Urriaren 15ean, Lizarra aldera txangoa antolatu du Biyak Bat erretiratuen elkarteak.

Irteera goizeko 9:00etan da. Elkartetik atera eta, hamaiketakoaren ostean, Artaxoako Zerkoari, Erdi Aroko herri gotorlekurik garrantzitsuenari, bisita egingo diote.

Bazkaldu eta, bazkal ostean, opariak banatuko zaizkie eta bingoa eta dantzaldia egongo da. 18:30ak aldera iritsiko dira Lasarte-Oriara.

Guztira txangoa 32 euro dira. Izena eman nahi duen orok, jo dezala Biyak Bat erretiratuen elkartera. •

BIDEOFORUMA

Ludopatía aztergai

Gaur, ludopatiaren inguruko bideoforumara antolatu da 16:00etatik 19:00etara Ema-kumeen Zentro Zibikoan.

Simpson telesailiko *Springfield o cómo aprendi a amar el juego legalizado* kapitulua ikusi eta Beatriz Alonso *Ekintza-Dasalud* Mendekotasun Psikologikoen Erreabilitaziorako Elkartearen psikologoarekin solasaldia egingo da. •

BIGARREN IKASTAROA

Arrisku handiko manipulazailerik karneta

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udaleraren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ostalaritzako sektoreari zuzendua dagoen arrisku handikoa janari-manipulazailerik karneta ateratzeko bigarren ikastaro bat antolatu du.

Ikastaro honek urriaren 5ean eta 6an izango du leku, Villa Mirentxuko ekitaldi aretoan, 16:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago jaso-zeko edo izen emateko, deitu 943 533 303 telefonora. •

Mugikortasun iraunkorraren egun handia Andatza plazan

Gaur arratsaldean, 16:00etatik 19:30era bizikleta izango da protagonista Andatza plazan.

Ingurumeneko sailak Mugikortasun Iraunkorraren astearen barruan antolatu duen ekintza nagusia dugu hau eta Lasarte-Oriako herritarren artean bizikletaren erabilera sustatzea du helburu.

Taldeko ibilaldia Plazaolaoko trenbidean zehar, jolasak eta gymkhana antolatuko ditu Ingurumeneko sailak Lasarte-Oriako Bazpi Txirrindulari Eskolaren laguntzaz.

Honetaz gain, bigarren eskuko bizikleten azoka egongo da bertan eta bizikletaren erabilera eta zainketa buruzko oinarritzko tailerra ere eskainiko da, 17:00ak aldera.

Euria eginez gero, ekintza guztiak Kirol guneko, hau da, Michelineko teniseko pista estalietan egingo dira. •



Autorik gabeko eguna. Asteartean, Europako Autorik gabeko Eguna zen. Mugikortasun Iraunkorraren asteen sartzan den egun honetan, autoa alde batera utzi eta beste garraiobideen erabilera sustatzeko asmoz, hiri eta herrietan erdiguena itxi egiten da. Argazkian ikusi daitekeen bezala, Kale Nagusian goizeko hamaiketara ez zebilen kotxerik eta hala izan zen eguerdiko ordu bata arte. •

Ur Jolasak, antzerkiak, tailerrak, festak...

Udan ondo pasatzeko eskaintza paregabea lasarteoiatar gazteak izan dutena Txokoak eta Kanpaldiei esker

Irisa MORENO

Lasarte-Oriako gazteak, 3-18 urte bitartekoak, udan dismurtzezko aukera zabala izan dute. Txokoak eta Kanpaldiak, bi modu elkarren arteko harremanak sustatu, sortu eta indartzeko aukera, modu dibertigarrienean. Aurtien, orotara 500 gazte hartu dute parte Txokun Kultur elkartek proposatutako eskaintza. Errotzen doan eskaintza honetan gero eta gazte gehiago hartzen dute parte. Neguan ere, euskararen normalizatzeko bideari jarraitzen bat emateko, Ludoteka martxan jarri zen pasan den astelehenean.

Txokoak

Ez da zainza programa bat soilik, heziketa prozesu bat da, pedagogikoa. Txikiatik hasiz, koizkorrak arte irauten duena. Ondoko planteatutako programa eta marka alukoa dela diote antolatzaileek. Tentuz eta baretzak prestatuakoa. Beira-aren lana garrantzitsua da eta aurtien oso giro poltsa sortu da, arduradunen usuez, lan ederra egiten dute eta horiek uneengain eragina izan du.

Parte hartu duten umeen kopurua ere, aurtien gora egin du nabarmen txokotean, ia 500 lagun izan dira: uztailaren 4.22.ume, abuztuaren 60, gutzira 482.

Ur jolasak, apararen festa, sukaldaritza tailerrak, bide heziketa... jarraitu dituzte. Azken hau ezberdin landu da txikieta zaharagoen artean.

Txikiak Garaikotxean bertan landu zuten jolasen bidez. Garaikotxeak kalera irten ziren. Tailerak eta bakotzak kolore bat irudikatu zuten. Herria gunetan banatu zen, Korrikan egiten den antzerki eta talde guztiak biltzen ziboaizten heinean bizikleta tropel ikaragarria sortu zen, eta amaieran, balde guztiak elkarrekin zeudenean, kolore guztien artean, ordezadara osatu zuten. Bilbildean aurkitu zihuzten seinale guztiak errespetatuz, helduagari iritsi beharra zuten, eta baita lotu ere.

Txokotean aritu diren ume heldueneren ekintza nagusia, kirola izan da, baina ez dituzte batzuk irakatsi dizkiete; hala nola; praguisuma edota birrimundiaritza. Bestalde, "Gaur"asa'n ere parte hartu zuten. Aurtien

Gazteen arteko harremanak sendotzeari eman diugu aurtien garrantzia, eta akibitate gehienak horretara bideraturik burutu dira

Asteazka bisitatu eta gauetan, bertako frontoan egin zuten 10. urteko oso gogoko duten ekintza dugu hau.

Gorputz adierazpenak eta hizkuntza lantzeko jardaldia ere prestatu dira. Txikienen kasuan, emanaldia kalean egin zen. Danzatz eta abestirik prestatu zizuten gero ikastakoa hurbildutako jendeari aurkezteko. Teknika interesgarria da, bai gorputz adierazpena bai hizkuntza lantzeko baliogarria. Eta era berean hizkuntza jasotzeaz aparte, lantzeko ere aukera eskaintzen duena. Zaharrenek, txikien antzera prestatu zuten emanaldia, baina antzerkia ere egin zuten. Gaitnera, kalean beharresean, Kulturtxean eskaintu zuten emanaldia.

Kanpaldiak

Mendigorren ibili dira aurtien 9-12 urte bitarteko gazteak. Gutzira 60 jai dira, bilbilria ez den kanpaldi bakarra dugu hau.

Aurtien, iserilekua izan dute eskean bertan, eta horrek onura handia ekarri du, programazioan erazteko orduan, asko lagunduz.

Urtero bezala, txirringa eraman dute jateak eta onduko herrietara potoke erabiltz dute. Abentura ere ez da falta izan Kanpaldian. Txirringa hartu eta Laragarra abiatu ziren, han jolasak eta ekintzak ugari egin zuten. Dibertitzeko aukera da eta gero, frontoan gaita paka zuten. Arakastisua, bat-bateko ekintza zelakoan. Honetaz aparte, Sendavivara joan dira,

Txokotean bide heziketa eskintza. Baizketa hartu eta beste gidaririk bezala bidean ziren seinaleak errespetatu behar izan zizuten umek.



Txokoak heziketa prozesu bati jarraitu antolatzen dira. Ez dira zainza programa soilak, alde pedagogikoa ere badute



Porrozek aurreko urtean, Ludotekari egindako bista.

Neguan ere euskaraz bizitzeko aukera paregabea Amaraun Ludotekan

Hilaren 2 tan jarri zen berriro marxan Ludoteka. Udan egin dituzten egitasmo horiei jarraitzen bat emateko asmoa dute aurtien ere. Udako ordutegia aldatzen da, baita erimotua ere, umek ez baitaude onopratuak. Oraingoan ere, espazio itxi batean jorribako dira jalarak.

3-8 urte bitarteko haurrei bidertaria dago. Astelehenerdik ostegunera 17:00 - 20:00 bitartean joateko aukera izango da, bi orduz trauingo duten txandetan. Izan ere, antolatzaileek bi orduko denbora hori baino gehiago berian egotea ez dute gomendagarria ikusten. Eskulanean, sukaldaritza tailerrak, txoxongilo saioak, bisita sorsesak... eta nola ez ba, hezkuntza ere landuko da, hizkuntzarekiko ohitura bat bertaltzen saiatuko dira. 5-8

urte bitarteko gazteen artean, koadrillategi ere Ludotekatik pasatzen da. 12 unetik aurrerako gazteenzat da. Ostralean bildu eta hizkidiak, tailerrak, sukaldaritza, Orokorrean hasi, koadrillategi ere, bida girorik ludeokan, baina oraingo honetan 9-12 urte bitarteko gazteen bantada da. Gazte Kluba deritza, eta bertan eskulanean, tailerrak, euskaraz gozatzeko jarraitzeko aukera hori bermatuz. •

egiten dira. Gazte Kluba, aurtien ere, jarraitzen gozatzeko ekintzak antolatuko ditu. Hemen parte hartzen duten gazteek programazioan ere eragin dezakete, gaita proposatuz. Orokorrean, lehenengo hilabetea kenduta, beraz, kin batera antolatzen dute programak.

Koadrillategi ere Ludotekatik pasatzen da. 12 unetik aurrerako gazteenzat da. Ostralean bildu eta hizkidiak, tailerrak, sukaldaritza, Orokorrean hasi, koadrillategi ere, bida girorik ludeokan, baina oraingo honetan 9-12 urte bitarteko gazteen bantada da. Gazte Kluba deritza, eta bertan eskulanean, tailerrak, euskaraz gozatzeko jarraitzeko aukera hori bermatuz. •



Sukaldaritza tailerren umek jantria prestatzen ikasten dute. Elkarri laguntza ematen diote.

SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

12 urteko garantzia

FORMA 12 urteko garantzia

vegasas

Lasarte-Oria

Lasarte-Oria 943 361471

www.sugate.net

Kiroletako agenda

■ **FUTBOLA** ■

Larunbata 26

10:00etan, Ostadar-Afarga (Infantil txikiak) Michelinen.
15:30ean, Texas Lasartearra-Itxaurren (I. Jubenila) Michelinen.
17:15ean, Texas Lasartearra-Danena (I. Erregionala) Michelinen.

10:30ean, Salse-Ostadar (I. Infantil) Felix Garin, Donostian.
12:30ean, Tolosa-Ostadar (Emakumezkoen kadeteak F-11) Usabal, Tolosan.
13:45ean, Luberri-Ostadar (I. Kadetea) Berio, Donostian.
17:00etan, Beti Ona-Ostadar (I. Jubenila) Beraun, Errenterian.
17:00etan, Touring-Ostadar (Erregionala Goren) Fanderia, Errenterian.

Igandea 27

10:00etan, Ostadar-Sporting de Herrera (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.
11:45ean, Ostadar-Hernani (Emakumezko Erregionala) Michelinen.

■ **ARETO-FUTBOLA** ■

Larunbata 26

17:00etan, Tellatuberri-Zaldibi-ISU Leihok (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Resti frontoia, Zaldibian.
18:00etan, Lakunza garraioak-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Olaederra kiroldegia, Billabonan.

■ **FUTBOL 7** ■

Larunbata 26

20:30ean, Arrilur Recolaf-Niasa-Corpa (III. Maila) Cesar Benito, Donostian.

■ **PILOTA** ■

Ostirala 25

20:15ean, Eibar-Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Astelena, Eibarren.

Larunbata 26

11:30ean, Intza-Arrasateko (Eskuz binaka II. Kadetea) Michelinen.
11:30ean, Intza-Murumendi (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.



Gorka Aristegi entrenatzaileak bere kirolariengan konfiantza osoa du eta iazko emaitzak hobetzea espero du.

LOKEko judoek txapelketaz betetako denboraldia dute

■ Gogor hasi dira lanean eta dagoeneko Beñat Elizaldek zilarrezko domina eskuratu du San Lorenzo txapelketan

LOKEko judoek irailaren hasi zituzten entrenamenduak eta gogor hasi gainera, lehengo asteburuan Iñaki Elizaldek Valladolideko San Lorenzo txapelketan bigarren postua eskuratu baitzuen. Gorka Aristegi entrenatzailearekin hitz egin dugu eta denboraldi honi buruz solasean egon gara.

“Talde bezala, iazko taldea mantenduko dugu. 60 eta 70 kirolari artean izango ditu. Horietatik umeak 24 bat izango dira; besteak 10 urtetatik gora berrogei urtera arte gutxi gora behera,” azaldu digu judoko entrenatzaileak.

“Taldeari dagokionez, nire helburu nagusia taldea sendotu eta haiek disfrutatzen jarraitzea da. Eta ekintzarekin Lasarten jarraitzea, ez dela gutxi,” adierazi digu Aristegik.

“Honetaz gain, pertsonak hezten saiatzen naiz. Nire judokak pertsona onak izan daitezten da nire helburua. Gainera, ikasketei ere garrantzia ematen diegu, galdetzen diegu, ezin dugu gauza askorik egin baina gainean egoten gara. Eta gurasoekin ere harreman estua dugu,” atxiki du.

Lan taldea

Judoek gainera laguntza handia dute bai LOKE elkartetik, baita beharrezkoa duten egoera fisikoa mantentzeko ere.

“Aipatzekoa da ere dietista batekin lan egiten dugula. Gure kirolean oso garrantzitsua da pisua eta Ainhoa Aier-

direkin urte batzuk daramatzagu lanean eta oso pozik gaude. Bestalde, Sinergia fisioterapia taldearekin ere harremana dugu eta haiekin lesioak eta alde fisikoa lantzen dugu,” aipatu digu Gorka Aristegik.

Lehiaketak

“Denboraldia a tope dugu. Maila guztiak ditugu eta horrek ia astebururo lehiaketa izatea dakar, juniorrek ez dutenean, dute infantilek edo kadeteek,” erantzun digu lehiaketei buruz galdetzerakoan.

Aurreko urteetan judoaz gain, sanbo, borroka eta kata lehiaketetan parte hartu eta dominak eskuratu dituzte LOKEko gaztetxoek, baina “aurten ez dugu borroka egitekoa asmoa,” aipatu digu Gorka Aristegik.

Judoka ezberdinek dituzten aukeretz ere hitz egin du, “Beñat Elizalde gogor entrenatzen jarraitzen du eta ea aurten ere zortea duen. Juniorrak, hiru edo lau ongi ibiliko dira. Gehienak neskak dira, Leire, Amaia... Kadete mailan ere, gogo asko duten jendea dugu, Esteban, Mario eta iazko infantil batzuk ere lehiari egongo dira eta alebinetan ere talde ona dago.”

Bidaiak

Inguruko lehiaketez gain, LOKEko judoek bidaiatzeko aukera izango dute aurten. “Urriari Leire Zubizarreta Palermora doa Hondarribiko

taldearekin taldekako lehiaketa batean parte hartzera. Urtero bezala, Pau eta Sauvignoneira joango gara, baita Avilesera ere. Eta Menorcan udalekuak egiteko proiektua dago,” adierazi digu entrenatzaileak.

Eta ez hori bakarrik, “asteburu honetan Valentziara goaz entrenatzera. Gaur egun judon potentzia bilakatu da eta bertan entrenatzen du Munduko txapelkun ordeetako batek. Eta hara goaz Oartzun eta Hondarribiako taldeekin batera haiekin entrenatzera,” esan digu Gorkak.

Zilarrezko domina

Honela, lehengo asteburuan, Beñat Elizalde denboraldiko lehenengo domina eskuratu zuen Valladolideko San Lorenzo txapelketan, zilarrezko domina.

“Ez nuen emaitza hori espero,” onartu digu LOKEko entrenatzaileak, “fisikoki oso ongi zegoen baina judo aldeetik oraindik lana zuen egiteko, baina lan zoragarria egin zuen eta zilarrezko domina eskuratu zuen.”

Izena ematea

Ohiko kiroleatik kanpo, zazpi urtetik gorako hurreki kirola egiteko aukera ona da judoa. Izan ere, “guk izena ematea irekia dugu beti eta probatze-ko aukera ere ematen dugu inongo konpromezurik gabe,” esan digu Aristegik. •

Kiroletako oharrak

Neguko ordutegia

Herriko kirol guneetan neguko ordutegia dago dagoeneko.

Kiroldegia, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:30etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandean, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00tik 12:30etara eta 14:00tik 21:30etara, larunbatetan 9:00tik 13:00etara eta 16:00tik 20:00etara, igandean 9:00tik 13:00etara.

Michelingo kirol gunea, astelehenetik ostiralera, 15:00tik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00tik 20:00etara eta igandean 9:00tik 13:00etara.

Tenis eskolaren ikasturte hasiera

LOKEko Tenis eskolak hasiera eman dio 2009-2010 ikasturteari.

Tenis eskola 7 eta 16 urte bitarteko neska-mutuei zuzendua dago.

Eskolarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, irailaren 14tik aurrera eta arratsaldeko 18:30etatik aurrera Mixtelingo kirol gunera hurbil zaitezke.

Igeriketako ikasturte abian

Buruntzaldea I.K.T.k ireki du jadanik 2009-2010 ikasturteko matrikulazioa.

Izena emateko jo udal kiroldegira 18:00etatik 21:00ak bitarte edo deitu Ruben Villalon entrenatzaileari (696 506673).

Adinaren arabera entrenamendu egunak eta ordutegian desberdinak izango dira: 96koak egunero 19:00etatik 21:15era; 97koak, astelehen, astearte, ostegun eta ostiralean 19:30etik 21:15era; 98-99an jaiok, astelehen, asteazken eta ostiralean 18:00etatik 19:30era; 2000koak astelehen, asteazken eta ostiralean 18:30etik 19:30era; 2001ekoak astearte eta ostegunetan 18:45etik 19:30era eta 2002an jaiok astearte eta ostegunetan 18:00etatik 18:45ak arte.

Gimnastika entrenamenduak

LOKEko gimnastikako neskek entrenamenduak hasi dituzte, 7 eta 8 urteko neskatok izan ezik, urriari hasten direla.

Gimnastika egin nahi duten neskek irailaren zehar eman dezakete izena entrenamendu egunetan, osteguna eta ostiralean, 19:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 12:00etatik 13:30era.

Informazio gehiago eskuratzeko, jarri zaitezte harremanetan Maite Rueda entrenatzailearekin, 676 872 029 zenbakian.

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABAL argazki-lari zarauztarraren, *Itsasoari begira* argazkia sorta ikusgai. JALGI KAFE-ANTZOKIAN **egun osoan zehar**.



Ostirala, 25

Bideoforuma

LUDOPATIA gaitzat hartuta, Simpson telesaileko Springfield o cómo aprendí a amar el juego legalizado kapitulua ikusi eta ostean, Beatriz Alonso Ekintza-Dasalud elkarteko psikologoarekin solasaldia egingo da.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA, **16:00etan**



Antzerkia

GREASE antzeztuko dute Landaberri Antzerki Eskolako gazteek Usurbilgo Udalak eta Txerriki Antzerki Taldeak antolatuta. Sarrera: 1 euro, egunean bertan.

USURBILGO SUTEGI KULTURETXEAN, **22:30ean**, EUSKARAZ.



Larunbata, 26

Jaialdia

Zero-Sette akordeoi orkestrak eta Udalak antolatutako LASARTE-ORIAKO VI. AKORDEOI JAIALDIA ren eskutik. Jaialdiko



Bluesa, gopela, rock&rolla... kulturretxean

DOWN TOWN TRIO esperientzia handiko hiru musikariez osaturik dago, eta proiektua iraunkortasun eta seriotasunean oinarriturik dago.

Bluesa, gopela, rock&rolla, countrya, etab. jorratzen dituzte. Beren bilduma abesti propioez osaturik dago, baita genero hauen mito handien bertsoez ere.

OSTIRALA, 25EAN
20:00ETAN

KULTURETXEKO KAFETEGIAN

gonbidatu nagusia Nathalie Boucheix izango da bere taldearekin. Hauetaz gain, Xabier Iglesias akordeoi jolea eta Zero Sette orkestra egongo dira.

MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:30ean**.



Igandea, 27

Omenaldia

BERTSO SAIOA izango da PATXI ETXEBERRIAREN omenaldi egunean. Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, Unai Muñoa, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia, Koxme Lizaso eta Jon Azpillaga bertsolariak hartuko dute parte. Aurretik 11etan meza izango da San Pedro Parrokian.

MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **12:00etan**, EUSKARAZ.

Liburutegiko ordutegia

Astehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturretxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Etxeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxeraterik kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Oriatarren bazkaria

Urtero legez Oria auzoko bizilagunen eta lagunkideek bazkaria ospatuko dute urriaren 18an. Txitxardin Beltza jatetxean izango da eta aurten Bruneteko eta Oria auzoko praktikante izandako Jose

Javier San Sebastian omenduko dute.

Bazkarirako txartelak eskuratzeko telefono zenbaki hauetara deitu behar da 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol) urriaren 10a baino lehen.

Marrazki eta margo eskola

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroetako izen-emateko epea zabaldu du.

Beraz, interesa duzuenok irailaren 21ean, 23an eta 25ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 7, behea zenbakian duten egoitzan.

Oztabide elkarteko loteria

Arranbide-Ozotaraneko auzotarrei jakin arazten die egube-

rritako loteria salgai dagoela.

19827 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteriako partaidetzan eskatzeko aukera izango duzue.

Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, Zumaburu auzoa) eta Coviran supermerkatuan erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administritzat gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elakrteak.

Edozein zalantza argitze-ko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu.

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxo-iei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika

jakitea.

Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingo da, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitezte!

Xumela korua martxan

Xumela koruaren lehen entsaioa urriaren 5ean izango da, beti bezala Landaberri BHI egoitzan eta arratsaldeko 19:30ean. Interesa duzuenok, bertara azaltzea besterik ez duzue. Animatu eta etorri kantatzera!

Eskularen ikastaroko lehen saioa

Ttakunek antolatutako eskularen ikastaroko lehenengo saioa urriaren 3an izango da, Erribera kaleko 1. zk. (liburutegi zaharrean), goizeko 10:30ean. Interesatuak bertara azaldu edo Ttakunen izena eman (Geltoki kalea 4, 943 371448). Eskularen gogoko

badituzu, animatu eta etorri, ez zaizu damutuko!

Oinaten irteera bertan behera geratu da

Oinatz taldeko arduradunek jakinarazi digutenez, Donibane Garazira urriaren 4rako antolatuta zuen irteera ez da egingo.

Data berria ezartzerakoan, komunikabideen bidez eman- go dute honen berri. Barkatu eragozpenak.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Lagunak kantari Patxi Etxeberriari

Lasarte-Oriako bertsolaria omenduko du Bertso Eskolak igande goizean

gandean omenduko du Lasarte-Oriako bertso eskolak Patxi Etxeberria. Omenaldiaren aurkezpenean Imanol Lizardi eskolako ordezkariak jakinarazi zuen "gurekin bertso eskolan 10 urte eta plazaz plaza kantuan 50 urte baino gehiago daramatzan bertsolariari egingo zaion omenaldiak" bi zutabe dituela, liburua eta omenaldi-ekitaldia. Etxeberriaren bertso garaikideak eta kantu-kideak ekarri nahi izan ditu Bertso Eskolak eta igandean eguerdiko 12etan kultur Etxean kantatuko dute Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia, Koxme Lizaso eta Jon Azpillagak, Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu eta Unai Muñoarekin batera.

Jakina da Orion jaio eta Lasarte-Oria egin duela bizi-tza Patxi Etxeberriak eta besteak beste, bi herri hauetako Udaletako ordezkariak, Foru Aldundikoek eta bi herrietako bertso eskolek hartuko dute parte omenaldian.

Aurkezpenean izan ziren Lasarte-Oriako Udalaren ize-

nean Ricardo Ortega Euskara saileko burua, Xabier Lasa liburuaren egilea, Patxi Etxeberria omendua, Imanol Lizardi Bertso Eskolako ordezkaria eta Felix Irazustabarrena Gipuzkoako Bertsozale Elkarteakoa.

Udalari eskerrak

Udalak emandako erraztasunak nabarmendu zituen Imanol Lizardik Ricardo Ortegari hitza eman aurretik. Honek, gizon ezaguna eta estimatua, Lasarte-Orian euskara unerik latzenetan zegoenean kantuan aritu zen bertsolari bakarretakoa dela esan ondoren, Patxiaren ibilbideak emandako fruituak aipatu zituen: "bi aipatzeagatik, Bertso Eskola eta herriko ikastetxetako haur guztiak jasotzen ari diren *Ahozkotasuna eta Bertsolari-tza* egitasmoa".

Xabier Lasak liburuaren egitura laburbildu zuen, batetik testigantza zuzenekin eta bestetik Patxi Etxeberriak kantatutako bertsoekin osatu dela aipatuz. Mattin, Xalbador, Basarri eta Uztapiderekin egin zituen saio-etako bertsoak jaso ez izanaren



Lizardi, Etxeberria, Lasa, Irazustabarrena eta Ortega aurkezpenaren aurretik.

eztena aipatu zuen, grabaketa duela urte batzuek hain hedatua ez zenez Xenpelar dokumentazio Zentroan ez omen dituzte aurkitu. Liburuan, Patxi Etxeberria, bere emazte Iñaxi Etxeberria, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia eta Andoni Egañaren ahotik kontatu da bertsolariaren bizi-tza, Lasaren iritziak, "kontu kon-talari apartak, xamurtasun eta umore handikoak".

Patxi Etxeberriak berak "izugarriko poza" duela azaldu zuen hainbeste lagun jator han aurkezpenean ikusita. Bertso eskolakoek berotu eta azkenean amore eman zuela: "Nik ez nuen pentsatu ere egin bizi-tza osoan liburu bat izango nuenik. Lehenago ere proposatu zidaten Joxe Mari Iriondok adibidez. Ezet esan nion eta utzi egin genuen. Hauek hura baino egoskorragoak izan non-

bait eta hala nola izaten diren gauzak, argia ikusi du. Liburua jaio da, poz handia hartzen dut eta eskertzen dizuet zuek bataiatzera etorri zaretelako" esan zien aurkezpenean izan zirenei.

Belaunaldien arteko zubi

Felix Irazustabarrena Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak ordezkariak adierazi zuen azkenik elkartearantzat pozgarria dela Etxeberria omentzea eta era berean ideia bera bertso eskolatik sortua izatea. "Arrazoi asko daude omentzeko baina nik bat aipatuko dut. Bertsozale Elkartearen ardatza bertsolari-tzaren transmisioa da, gure ondarea beste belaunaldiei ematea, eta Patxi Etxeberriak bere bizi-tzan hori egin du, bere garaiko bertsolariekin, gazte-goeekin eta oso gazteekin."

Omenaldi egunean 10 euroren truke ekitaldiko sarrera eta liburua emango dira eta sarrera soilak 3 euro balio du. Astelehenetik aurrera liburua Udaleko euskara zerbitzuan eskuratu daiteke 10 eurotan. •

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
%40 - %75
2009-10

ona eta merke

Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatariarentzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 20ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

